



taxi kitto!



**Musuak eman eta
jasotzeko prest?**

Argitaratzailea

"...eta kितto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuarta.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Maialen Belaustegi.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Txikis leak

- Ileapaindegitik nator!
- Zergatik oihukatzen didazu?
- Bolumena eman didatelako!



- Zer esaten dio donuts batek beste donuts bati?
- Hau da zuloaaaa!



- Zer esaten dio zereal batek beste zereal bati?
- Hau da "la letxe"!



- Zer esaten dio semaforo batek beste semaforo bati?
- Ez begiratu mesedez! Aldatzen ari naiz!



- Gaur amets egin dut diruduna nintzela nire aita bezala.

- Zure aita diruduna da ala?

- Ez, baina berak ere ia egunero diruduna dela egiten du amets.



- Ipur-masail batek esaten dio ondoko masailari:
- Ez pasatu marratik!!



- Zer esaten dio berenjena batek beste berenjena bati?
- Zergatik zaude arnasa hartu barik?



- Zergatik ez dituzte erabiltzen elefanteek ordenagailuak?

- Arratoien beldur direlako!



- Letizia erregina sartzen da bainuan eta bitartean abesten hasten da:




- Ten, ten, ten, ten... Ten, ten, ten, teeeennn...

Eta Felipek kanpotik erantzuten dio:

- Ez da Ten, da Panten!





Gipuzkoako Foru Aldundia



0. Janariak prestatzeko erabiltzen dugu. SUKALDEA

1. Filmak, dokumentalak eta abar ikusteko da.
2. Jakiak irabiatzeko erabiltzen dugu.
3. Jakiak hotz kontserbatzeko da aparatu hau.
4. Berriak entzuteko da.
5. Arropa garbitzeko erabiltzen dugu.
6. Hautsa hartzeko da.
7. Oilaskoa eta arraina erretzeko erabiltzen dugu.
8. Aparatu hau irudiak telebistan ikusteko da.

Lagundu Alexi eskola aurkitzen



Lagunduko diozu Maddiri txilibitua aurkitzen?

Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **azaroak 8** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Irabazlea sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Xuban Varona

Aupa Xuban, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburu politak zuretako! ZORIONAK!

Ylenia Baglietto



Telebistan, zinean eta antzerkian eskarmentu handia dauka eibartar gazte honek. Goenkale teleaioan ezagutu genuen. Baina kirolari trebea ere bada: Ipurua Gimnasia Erritmikako taldearekin Espainiako txapeldun izan zen taldeka. Gaur egun DantzanGo saioan ikus dezakegu, ETB-1en.

- **Umetako amets bat?**
Astronauta izatea.
- **Eta orain duzun ametsa?**
Bizitzaren momentu bakoitza topera bititzea.
- **Gehien gustatzen zaizun jakia?**
Kroketak.
- **Eta gutxien?**
Tomatea.
- **Kolore bat?** Gorria.
- **Abeslari bat?** Freddie Mercury.
- **Abesti bat?**
Bohemian Rhapsody.
- **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.
- **Gazia ala gozoa?** Gozoa.
- **Uda ala negua?**
Uda.
- **Animalia bat?**
Katua.
- **Irla batera zer 3 gauza eramango zenituzke?**
Musika entzuteko tresnaren bat, liburu asko eta txikleak.

Izena: Ylenia
Abizena: Baglietto
Jaioterria: Eibar
Jaiotze-data:
 1986ko abenduak 18



- **Sekula jantziko ez zenukeen arropa bat?**
Dena jantziko nuke.
- **Eta zure armairuan falta ez dena?**
Belarritakoak.
- **Birziklatzen duzu?** Bai!

- **Euskara osasuntsu dago?**
Pena handiz esaten dut, baina ez.
- **Zer egin euskera gehiago erabiltzeko?**
Euskera erabiltzeko libre sentitu. Gure hizkuntza da, goza dezagun berarekin.
- **Telebistako saio bat?**
Gure kasa.
- **Zinea ala antzerkia?**
Biak.
- **Ametsetako oporrak non?**
Australian.
- **Nolakoa da zure egun perfektua?**
Nahi dudana egin ahal dudanean.
- **Zerk pozten zaitu?**
Bizirik egoteak.
- **Zerk haserretu?**
Gezurrak.



ni bai artista!

Urtxintxa

Eskulanetarako aukera asko emateko ditu udazkenak. Urtxintxak ikusi daitezke negua iritsi baino lehen fruitu lehorrak pilatzen, eta guk geuk fruitu horiek erabili ditzakegu urtxintxak irudikatzen. Nola? Ba adi egon.

Materialak:

- Hurrak
- Eskuila marroiak
- Errotulagailu marroia
- Itsasgarria
- Guraizeak



Pausoak:

1. Hur bat bestearen gainean itsatsi silikona beroarekin. Ondo lerrotuta egon daitezela.
2. 15 zentimetroko eskuila zatia moztu eta lazo bat izango balitz bezala tolestu. Ertzean lerro horizontalak egin, lurrean mantentzeko.
3. Hurrak eskuilarekin egindako oinarrian itsatsi. Modu honetan urtxintxaren hankak eta buztana izango dituzu.
4. Eskuila zati txiki bi moztu urtxintxaren eskuak egiteko.
5. 0,5 zentimetroko eskuila zati bi erabili belarriak egiteko eta buruan itsatsi.
6. Begiak eta irribarrea marraztu.



Urriko dekorazioa

Zuhaitzetatik erori diren hostoak batu eta garbitu. Zuhaitza ezberdinetakoak badira, hobe. Hostoak margotu eta dekoratu, eta baita ezkurak ere. Material guztiak lehortzen direnean, hari fina erabili zuhaitzean biribildu eta zuk nahi duzun tokian ondo finkatzeko.



sukal-saltsan



Zerealekin arrautzaztatutako oilaskoa

Errezeta dibertigarria ekartzen dizuegu oraingoan, bai egiteko orduan, baita jaterakoan ere. Oilasko kurruskaria jateko aukera paregabea izango da!

Osagaiak:

- Oilaskoa
- Zerealak
- Arrautza
- Irina

Nola egin:

1. Zerealak poltsatxo batean sartu eta birrindu, baina ez gehiegi.
2. Oilasko zatiak irinetik pasatu, gero arrautzatik eta azkenean zereal birrindutik.
3. Arrautzaztatutako oilaskoa olio berotan frijitu.



Oilasko ogitarteko txikia

Oilaskoarekin jarraituz, ogitarteko txikiak prestatzeko aukera emango dizugu orain. Lehenik, oilaskoa zati txikitik xehatu eta gorde. Gero, azenariora birrindu eta piper gorria zati txikitik moztu, eta gorde hori ere. Ontzi batean oilaskoa, azenariora, piperra, artoa eta maionesa nahastu. Zartagina sutan jarri eta gurina igurtzi ogi integralean. Gero, ogia zartaginean xigortu. Azkenean, ogia lau zatitan moztu, sandwichak lehen gordetako nahasketarekin bete eta makiltxo batekin ogitarteko bakoitza ziztatu, jaterako orduan barrukoa ez erortzeko.



SAN ANDRES ESKOLAKO 4. MAILAKO IKASLEEK GOGO HANDIZ EGIN DIOTE IKASTURTE BERRIARI. HIRUHILEKO HONETAN ZEIN GAI LANDU NAHI ZUTEN GALDETU ZIETEN IRAKASLEEK ETA, EUREN ARTEAN ADOSTU ETA GERO,.

Zer dakizue robotikaren inguruan?
Zer nahi duzue ikasi?



Elene Beobide
8 urte

Irakasleak esan zigun guk proposatzeko zein gairen inguruan nahi genuen lan egin eta gure artean berba egin eta gero, robotika lantzea erabaki genuen. Nahiko gai modernoa da eta erakargarria iruditu zitzaigun. Niri ere gustatzen zait, beraz, pozik nago hartutako erabakiarekin.



Izaro Bilbao
8 urte

4. mailako bi gelak informatika gelan bildu ginen eta proiektu asko jarri genituen mahai gainean: munduko misterioak, robotika, sukaldaritza... Azkenean robotikari buruz lan egitea adostu genuen. Ni pozik nago, nire aitak robotikaren inguruan egiten du lan eta horrela gehiago ezagutuko dut zertan datzan.



Lennon Franco
8 urte

Robotek idatzi eta irakurri ahal dute, baina gauza gehiago ikasi nahi dugu euren inguruan: zenbat neurtzen duten, hegan egiten duten edo ez, madalenak egiten ote dituen... Nik badaukat robot bat etxean eta Eleneren robotaren laguna da. Cloudy dauka izena.



Itziar Eiriz
8 urte

Robotikaren mundua ezagutu nahi dugu. Uretan izorratzen dira? Nola montatzen dira? Zein materialekin daude eginak? Jolastu egiten dute? Sentimenduak dituzte? Dagoeneko hasi gara robotikaren inguruan lan egiten eta robotikaren historia zein den, izena nondik datorren eta robotikaren hiru arauak ikasten. "Morroi lana" da robotikaren esanahia.



Oihan Marcos
8 urte

Gauza asko ditugu ikasteko robotikaren inguruan eta gogo askorekin hasi gara. Gainera, hainbat bisita egingo ditugu. Adibidez, Teknikerrera joango gara egun baten eta bisita gidatua egingo digute. Robotak ikusteko aukera izango dugu han!



Andoni Olcoz
8 urte

Oso gai interesgarria da eta robotikaren inguruan lan egiten duten pertsonak klasera etortzea gustatuko litzaiguke. Horrela, euren gaitasunak ikasi eta, ikasten badugu, klasean zerbait egin dezakegu. Momentuz birziklatutako gauzeekin egindako robotak egin ditzakegu.



Moko txiki 6 urtetik aurrera

Mokotxiki hipopotamoaren bizkarrean bizi zen. Hain zen ttipia eta isila, non hipopotamoari ez zitzaion ardura txori mokotxiki bat eramatea bizkar gainean.



Grigor eta erlea 8 urtetik aurrera

Grigor, haur guztiak bezala, mundua miatzen dabil, zer topatuko. Lagun ezin hobek aurkitzen ditu bidean, eta, guztien gaitetik, erlea du bidelagun eta adiskide zintzo, liburu honetako lau ipuin dibertigarrietan.



Korri, Kuru, korri! 10 urtetik aurrera

Zarafa, Etiopiatik Parisera eraman zuten lehen jirafaren izena da. Kuru mutiko etiopiarrek kontatuko digu animalia lepoluzearen historia harrigarria: harrapaketa, karabana, erasoak... Baina Kuru ospital batean dago, han ezagutu du jirafaren mozarroa daraman neska gaixoaren istorioa, agian bere bidaia ongi amaitzen lagunduko diona... Amaiera, neurri handi batean, zeure esku dago, baina ez egon zain, korri, ekin irakurketari!

"Harri, orri, ar" (J. A. Mogel ikastola)

Juan Antonio Mogel ikastolako ikasleek oso joko dibertigarria erakutsi digute ikasturtea hasteko. Ziur 'harri, orri, ar' jokia ezagutzen duzuela, baina ikastolakoek beste buelta bat eman diote jokoari.

NOLA JOKATZEN DA?

- Musika jarri eta parte-hartzaileak jokia egingo den tokira irteten dira (parte-hartzaileen kopurua zenbaki bikoitia izan behar da).
- Hara eta hona dantza egiten mugituko dira musika gelditu arte.
- Musika isiltzen denean, alboan duzun pertsonarekin batu eta 'harri, orri, ar' jokatu bata bestearen kontra.
- Irabazleak jokatzen jarraitzen du eta galtzailea eliminatuta geratzen da.
- Musika martxan jartzen da berriz eta prozesu bera jarraitzen da.
- Azkenean bi pertsona geratuko dira finala jokatzeko, eta euren artean irabazten duenak irabaziko du jokia.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:
<https://etakitto.eus/txikitto/mogel-ikastola.html>

Urtero bezala, aurten ere **URKIZU** eskolako Lehen hezkuntzako ikasle eta irakasleak, Arratera igo ginen eguna pasatzera. Eguraldi zoragarria tokatu zitzaigun. Hamaiketakoak jan ondoren antolatutako jolasak izan genituen.



Ondoren bazkaldu eta jolas libre. Zein ondo ibili ginen! Nahi duen guztiak Urkizu eskola hobeto ezagutu dezan, web orri berria estreinatu dugu. Eskerrik asko horretan lan handia egin duen irakasle taldeari.



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxetik, kaixo lagunok! hemen gaude ikasturte berria gogoz hasteko prest: gela berria, irakasle berria... Irailaren 27tik 28ra, LHko 3. eta 4. mailako ikasleak Lurraskara joan ziren; zein ondo pasatu zuten!!!! Eskolan bertan, LH-ko ikasleak Capoeira-ko ikastarotxo bat ere izan dute soinetako saioetan. "Gurasoak ere eskolara" egitasmoa ere martxan jartzeaz dago, ea taldetxo bat lortzen dugun aurten ere. Gurasoak, animatu eta izena eman!!! Beno lagunok, beste gauza pila bat prestatzen ari gara eta hurrengoan kontatuko dizuegu!



Kurtsoari indarrarekin ekin diogu **LA SALLE** Isasin! 2. ziklokoak ZINEMALDIRA joan ziren irailaren 26an eta 1go eta 3. ziklokoak San Pedro eta Arratera joan ziren eguraldi onaz gozatzera. Urriaren hasieran 6.



mailakoak **SASTARRAIN**era joan ziren **EKAINBERRI** ezagutzera eta 4. mailakoak eta 5. urtekoak **LURRASKA** eta **BARRI**Ara, denak primeran ibili ziren!

Irailan, **SAN ANDRES** ikastetxeko 4., 5., eta 6. mailako neska-mutilak Bertiz eta Orioko barnetegietan egon dira.



Eguraldia lagun, oso ondo pasatu dute. Bertan, ekintza asko burutu dituzte. Tirolina praktikatu dute eta taloak egiten aritu dira; Orion, berriz, surf ikastaroa izan dute.



Kaixo, lagunok! Badatorrela, badatorrela!. Euskaraldia ate joka daukagu eta **ITURBURUN** motorrak berotzen hasi gara. Aurrera Euskara!

Joan den irailaren 20an **ALDATZE**ko 3. urteko gela eta LH 3. maila bitarteko ikasleok Arratera irteera egin genuen eta egun aparta izan genuen!!



ipuina

Bizitza

Duela 5 urte Nahia ezagutu nuen. Nahia berezia zen, minbizia zuen baina ez zen berezia horregatik. Bera benetako ameslaria zen. Ez zuen hiltzeko beldurrik, esaten zuen beldurra edukitzea denbora galtzea zela. Nahia beldurra ez izateaz gain, ez zuen lotsarik. Beti zegoen txisteak kontatzen besteek barre egin zezaten.

Nahia eta ni udaleku batzuetan ezagutu ginen. Lehenengo egunean negarrez nengoen ez nuelako nire gurassengandik banatu nahi. Orduan, niregana hurbildu zen eta esan zidan:

- Kaixo! Nahia naiz. Hona zatozen zure lehenengo aldia da?

Orduan berarekin eramane ninduen udaleku guztia ihustera, eta orduz geroztik nire lagun mina bihurtu zen. Udalekua bukatu zenean pena handia hartu nuen ezin izango nuelako ihusi. Baina berak neguko arratsalde aspergarri batean, nire etxera joango zela esan zidan. Eta hala izan zen, neguko arratsalde aspergarri batean nire amak deitu ninduen suhaldetik eta esan zidan:


- Noraaaaa!!! Begiratu leihotik!!!

- Ados ama- erantzun nion ahots aspergarri batekin.

Leihotik begiratu nuen eta hara non zegoen Nahia. Korrika jaitsi nituen eskaileak eta berrakada erraldoi bat eman nion. Handik aurrera hilean behin etortzen zen nire etxera. Baina hasieran esan dudari bezala Nahia minbizia zuen eta duela bi hilabete hil egin zen. Pena handia sentitu nuen baina gero ulertu nuen Nahiaren bizitzeko gogoak, bizitza bi egun direlako.

Izaro Alzaga





zu margolari